



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 20a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Peñan (Xabier), ehiza barruti pribatu batean dagoen eta errege-abelbide baten adarrean pasatzea eragozten duen hesi bati buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Corellako “Barranco de Morterete” izeneko alderdian egin zen txakurrarekin lagundutako ehiza xeheko txapelketa autonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Mendillorri lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, zenbait ikastetxe eraiki edo berritzeko lanen exekuzioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Cortesko osasun kontsultategiaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuan 2007. eta 2008. urteetarako aurreikusitako birmoldatze obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, hizkuntz ereduen araberako hezkuntza eskaintzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, nekazaritza-elikagaien hiria izanen dena hautatzeko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- Galdera, banda zabala hedatzeko plan nazionalean parte ez hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Pirinioetako larrialdiko plan estrategikoaren erredakzioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, interes turistikoa duten tokietan horma-irudiak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, etxebizitzak errentamenduan ematen dituzten entitateentzako hobariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusian euskarazko liburuak eskatzeko betetzen den fitxari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako hezkuntza sistema uzten duten ikasleen portzentajeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Toki Administrazio Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak egin dituen publizitate kanpainei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

– Zenbat publizitate kanpaina eta zer ezaugarritakoak (zenbatekoa, aurrekontuko zer kontusailen kargura, zein enpresaren bidez, euskarrien zer zabalkunderekin, zer hedabidetan, zer edukirekin eta abar) burutu dituzte Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eta haren menpeko erakunde autonomo, sozietate publiko eta instrumentalek 2004 eta 2005. urteetan?

Galdera hau dela eta, behar den erantzuna eman baino lehen, adierazi behar dut Nafarroako Gobernuako Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuako Eledunaren Bulegoaren arabera publizitate kanpainatzat hartuko direla gai berari buruz iragarki bat baino gehiago dutenak eta 12.000 euro (BEZa barne) baino gehiago balio dutenak

Hortaz, eta irizpide horien arabera, ondoko hauek dira Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eta horren menpeko erakunde autonomoek burutu dituzten publizitate kanpainak:

Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren kanpainak:

2004. urtean: “Har ezazu etxean” kanpaina, familiako harreraren gaian jendea sentsibilizatzerazuzendua.

Kanpaina hau Komunikazio Zuzendaritza Nagusiko Komunikabide Zerbitzuaren bidez egin zen, 2004ko ekitaldian horrelako jarduerak egiteaz arduratzen zen enpresa adjudikazio-hartzailearekin.

Kanpaina honen gastua “Familiari laguntzeko plana sustatu, zabaldu eta banatzea ” izeneko 910002 92000 2269 313400 aurrekontuko kontusailaren kontura egin zen, eta 32.336,60 euroko kostua izan zuen.

Kanpaina horrela zegoen osatua: Diario de Navarra, Diario de Noticias eta La Estafeta egunkarietan argitaratutako hamabi iragarki, hirurogei berinapeko alde bietan paratutako kartelak eta 200 kartel. Horretaz gain, programa azaltzeko 30.000 eskuorri (27.000 gaztelaniaz eta 3.000 euskaraz) argitaratu ziren, eta besteak beste, osasun zentroetan, ikastetxeetan, udaletxeetan eta familia elkarteetan banatu ziren.

Nafarroako Emakumearen Institutuaren kanpainak:

2005. urtean: “Ayuntamientos por la igualdad en Fiestas. ¿Y en fiestas qué?” kanpaina, herriko festak direla-eta jendea gizon eta emakumeen arteko berdintasunak duen garrantziaz ohartu dadin. Kanpaina honi ekainean ekin zion.

Lehenik eta behin, komiki bat egin zen eta udaletara bidaltzeko kartel elebidunak eta CDak prestatu ziren. Halaber, parte hartu behar zuten udalentsat, pertsonalizaturiko plakak egin ziren, komikia oinarri. Azkenik, honi buruzko jardunaldi bat egiteko plotter bat sortu zen.

Ondoren, komikia jaietako egitarauetan sartu zen, parte hartu zuten udalbatzekin ezagutarazteko ekitaldiak egin ziren, kanpainaren helburuen jarraipena egin zen, sanferminetan Nafarroako prentsan iragarri zen kanpaina, Iruñean kartelak banatu ziren eta Iruñeko zezen plazan banatutako triptikoetan ere kanpaina agertu zen.

Irailaren 29an amaiera eman zitzaion kanpainari hitzaldi eta mahai-inguru bat eginez.

Kanpainaren aurrekontua 27.423 eurokoa izan da eta "Berdintasunerako planaren garapena eta jarduketak" izeneko 930001 2269 232200 kontusailaren kargura ordaindu da.

Enpresa parte-hartzaileak ondoren aipatzen direnak izan dira: La tira de Oroz, Computadores Navarra, Cuadros Ibáñez, IMAGRAF S.L., Nexo Comunicaciones, Gótica Ediciones, GAPS comunicación eta Kazetas Comunicación

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 13an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Peñan (Xabier), ehiza barruti pribatu batean dagoen eta errege-abelbide baten adarrean pasatzea eragozten duen hesi bati buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Peñan (Xabier), ehiza barruti pribatu batean dagoen eta errege-abelbide baten adarrean pasatzea eragozten duen hesi bati buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Peña mendiko NA10.074 ehiza barrutiari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Zer iritzi duzu Sos del Rey Católicotik Erronkariko errege-abelbidera doan errege-abelbidearen E-18 adarrean pasatzea eragozten duen eta indarrean dagoen araudia urratzen duen hesiari buruz?

Gaur egun, abian da Xabier udalerriko abelbideen sailkapena eta mugaketa. Egin beharreko lanetako bat da udalerriri horretan egon daitezkeen abelbide guztiak identifikatzea.

Prozesua hasteko akta 2005eko azaroaren 14koa da.

Hor dauden abelbideen sailkapena eta mugaketa behin eginda eta Abeldideei buruzko Foru Legea betez, horien barna ibiltzeko ez da eragozpenik egon behar.

2.– Zergatik Ingurumen Departamentuak ez du ezer egin orain arte errege-abelbide guztiak duten bertatik pasatzeko zortasuna eragozten duen hesi hori kentzeko?

Orain arte, Xabier udalerriko abelbideak ez dira sailkatu ezta mugatu ere, beraz, egin beharreko lehenengo gauza sailkapen-espeditatea eta dagokion mugaketa onartzea da.

3.– Ingurumen Departamentuak garatu al du kontrol neurririk Peñako ehiza barruti pribatuan?

Nafarroako ehiza barruti guztietako kontrol neurri berak daude.

Neurriak, funtsean, honako hauek dira: indarrean dagoen legeria betetzea, Ehiza antolatzeke plana betetzea eta eman daitezkeen aparteko baimenak betetzea.

Ehiza antolatzeke planak eta hauek noraino betetzen diren kontrolatzeko prozeduretako bat auditoretzak dira. Horretarako, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 2005ean hamar auditoretza egitea programatu du Nafarroa osoko zenbait ehiza barrutitan;

horien artean, Xabierko Peña mendikoan (NA-10.074).

4.– Ehiza barruti horretan egiten diren ehizaldi pribatuaren ingurumen kontrolik egiten al da?

Nafarroako ehiza barruti guztietako kontrol neurri berak daude, Ingurumeneko basozainek edo beharrezkoa bada teknikariek egina.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 12an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Corellako “Barranco de Morterete” izeneko alderdian egin zen txakurrarekin lagundutako ehiza xeheko txapelketa autonomikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Corellako “Barranco de Morterete” izeneko alderdian egin zen txakurrarekin lagundutako ehiza xeheko txapelketa autonomikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledunak galdera egin du Corellako “Barranco de Morterete” izeneko alderdian egin zen txakurrarekin lagundutako ehiza xeheko 2005eko txapelketa autonomikoari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Zein da Ingurumen zuzendari nagusiaren mugatu gabeko eremu aske batean ehiza baimentzeari buruzko azaroaren 11ko 2399/2005 Ebazpenaren legezko babesa?

Azaroaren 11ko 2399 Ebazpenaren legezko babesa, espedientean dagoen txosten juridikoan aipatzen denez, lehenbizi 2/1993 Foru Legearen 52.2 artikulua ondu da. Artikulu horrek, ehizaren aprobetxamendua antolatzen laguntzeko helburuarekin, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari agintzen dio ehizatzen

toki, sasoi, egun, espezieak eta abar aipatzen dituzten debekualdiei buruzko xedapen orokorrak ezartzea. Horrek esan nahi du ehizarako debekualdiei buruzko foru aginduaren bidez ehiza egiteko lekuak ezartzen ahal direla.

Bigarrenik, 2005-2006 denboraldiko ehizarako debekualdiei buruzko xedapen orokorra ezartzen duen uztailaren 1eko 426/2005 Foru Aginduan, xedapen bereziei buruzko kapitulu batean, aipatzen da ehiza txapelketak antolatzen beharrezkoa dela alde aurretik Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuak emandako aldeko txostena ematea.

Aipatu zerbitzuak aldeko txostena eman zuen “Barranco del Morterete” alderdian egin nahi zen txapelketa salbuespenez baimentzeko; izan ere, txostenak esaten du martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 50. artikulua errespetatzen dela, alde batetik tokia ehizarako egokia zelako eta bestetik txapelketa egin behar zen alderdiko ehiza xeheko berezko espezieen populazioak ez zuelako aldaketa kaltegarriarik nozitu behar.

Azkenik, eta salbuespenezko baimena zenez, martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 11. artikulua ezartzen dituen baldintza guztiak betetzea eskatu zen, baimendutako ekitaldia zuzen betetzen zen kontrolatzeko.

– Zergatik departamentuak erabaki du ehiza baimentzea 2/1993 Foru Legeak baimentzen ez duen toki batean?

“Barranco del Morterete” izeneko alderdian txapelketa egin ahal izateko baimena eman zen, Nafarroako Ehiza Federazioak berak eskatuta, ezinezkoa zitzaielako ezaugarri horietako txapelketa egiteko baldintzak bete eta basa espezie nahikorik izanzen zuen tokia aurkitzea.

– Departamentuak jarraituko al du ehiza baimentzen 2/1993 Foru Legeak baimentzen ez duen toki batean?

Etorkizunean, departamentuak joko du Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Lege berrira, barrutikoak ez izan arren kontrolpeko ehiza egin ahal izanen den eremuak arautzen baititu.

– Departamentuak hartutako erabakia, hau da, 2005eko txakurrarekin lagundutako ehiza xeheko txapelketa autonomikoaren finala “Barranco de Morterete” izeneko alderdian egitekoa, behar den epean eta moduan jakinarazi zitzaion Corellako Udalari? Corellako Udalaren iritzia eta jarrera kontuan hartu ziren edota ekintza burutuen bidez jardun zen?

Ingurumen zuzendari nagusiaren ebazpena sinatu ondoren, Ehiza eta Arrantza Ataleko buruak Corellako alkatearekin hitz egin zuen esateko baimena eman zela Federazioak, departamentuak emandako barruti pribatuko zerrenda baten lagun-

tzaz saiatu arren, bestelako irtenbiderik aurkitu ez zuelako, eta aipatu ebazpena, geroztik errekurtsioa aurkeztu zaiona, faxen bidez bidali zion.

– Aztertu al dira 2005eko txakurrarekin lagundutako ehiza xeheko txapelketa autonomikoa “Barranco de Morterete” izeneko alderdian egiteak ingurumenari eragin diezazkiokeen kalteak? Zer ordain emanen da kalte horientatik?

Txapelketan hogeita hamar eper ehizatu ziren; beraz, ez da kalterik egon populazioan; aitzitik, esan daiteke positiboa izan dela ehizatutako ale gehienak zaharrak zirelako eta horrela populazioaren berriztapena errazten delako.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 9an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Mendillorri lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Mendillorri lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera bat egin du gaur egun

Mendillorriko ikastetxean lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleei buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

2006-2007 ikasturtean Mendillorriko ikasleak eskolatzeko planifikazioak, galderak aipatzen dituen alderdiei dagokienez, ez du aldaketa nabarmenik 2005-2006 ikasturtekoarekin alderatuta. Hori dela eta, ez da beharrezkoa ikusten administrazio mailan ikastetxe berria egitea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 13an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak

edo/eta horri atxikitako sozietate instrumentalek 2004-2005 urteetan egin dituzten publizitate kanpainei buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna: Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak emandako irizpideen arabera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du publizitate kanpainerik egin bere aurrekontuen kargura 2004. eta 2005. urteetan

Sozietate publikoei buruzko galdera horren erantzuna Ondare Zerbitzuaren bidez bideratu da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 19an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Osasun Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Osasun Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaun-

nak galdera egin du Osasun Departamentuak egindako publizitate kanpainei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Osasun Departamentuak, 2004ko abenduan, gazteentzako publizitate kanpaina bat egin zuen, 108.000 euroko kostuarekin, tabakoa kontsumitzen hasteari aurrea hartzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 20an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Hezkuntza Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Lizarbe Baztán jaunak Hezkuntza Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak 2004. eta 2005. urteetan egin dituen publizitate kanpainei buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

1.- Lanbide Heziketa sustatzeko eta matrikultzea bultzatzeko kanpaina.

2004an, publizitate kanpainak ondoko ezaugarriak izan zituen:

Nafarroako Gobernuaren enpresa adjudikazio-hartzaileak (GAP'S) eginikoa.

Gastua, guztira, 73.320,81 eurokoa izan zen, "Lanbide heziketaren garapena eta jarraipena" izeneko 420000-41230-2212-422700 kontusailaren kargura.

Honako euskarri eta bitartekoak erabili ziren:

- Egunkarietako iragarkiak (Diario de Navarra eta Diario de Noticias).

- Irratietako iragarkiak (Cadena 100, 40 principales eta Kiss FM).

- Telebistetako iragarkiak honakoetan: TVE, Antena 3, eta Canal 4.

- Kartelak ikastetxeetan eta Iruñeko berinapeetan.

2005ean, publizitate kanpainak ondoko ezaugarriak izan zituen:

Nafarroako Gobernuaren enpresa adjudikazio-hartzaileak (GAP'S) eginikoa.

Gastua, guztira 78.000,00 eurokoa izan zen, "Lanbide heziketaren garapena eta jarraipena" ize-

neko 420000-41200-2212-322E00 kontusailaren kargura.

Honako euskarri eta bitartekoak erabili ziren:

EGUNKARIAK: Diario de Navarra, Diario de Noticias eta La Estafeta.

IRRATIA: Cadena 100, 40 principales eta Kiss FM.

TELEBISTA: TVE, Antena 3, Canal 4 eta Canal 6.

Kartelak ikastetxeetan eta Iruñeko berinapeetan.

2.- Helduentzako euskararen irakaskuntzako Zubiarte euskaltegian matrikulatzeko kanpaina.

2004

Gastua, guztira: 12.261,01 euro

Kontusaila: 400000 41000 2262 421100 Publizitatea.

Enpresa: G.A.P.´ S. Comunicación Pamplona S.L. Aldibaterako enpresa-elkartea.

Edukiak: Matrikulatzeko datak eta irakaskuntza modalitateak.

Euskarriak eta komunikabideak:

PRENTSA

Iragarkiak honako egunkarietan: Diario de Navarra, Diario de Noticias eta La Estafeta.

ALDIZKARIAK

Villava-Atarrabia

Ze Berri

Orbela - Ibaialde, Aldapa, Auzolan

Nabarra

Barrios - Mendiberri

El Periódico Universitario

Ttipi Ttapa

Guaixe

Mendixut

IRRATIA

Radio Pamplona O.M.

Radio Pamplona F.M. Los 40

Kiss FM

Onda Cero

Cadena Cope

Cadena 100

Xorroxin irratia

Net 21 Radio

EKOIZPENA

Diptikoak.

Kartelak.

Sakelako egutegiak.

Irratiko iragarkiak

2005

Gastua: 13.891,0 euro

Kontusaila: 400000 41000 2262 321100 publizitatea

Enpresa: G.A.P.´ S. Aldibaterako enpresa-elkartea

Edukiak: Matrikulatzeko datak eta irakaskuntza modalitateak.

Euskarriak eta komunikabideak:

PRENTSA

Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan iragarkiak.

ALDIZKARIAK

Villava-Atarrabia

Ze Berri

Orbela - Ibaialde, Aldapa, Auzolan

Nabarra

Barrios - Mendiberri

El Periódico Universitario

Ttipi Ttapa.

Guaixe

IRRATIA

Radio Pamplona O.M.

Radio Pamplona F.M. Los 40

Kiss FM

Cadena 100

Xorroxin irratia

EKOIZPENA

Diptikoak.

Kartelak.

Sakelako egutegiak.

Irratiko iragarkiak

3.- 2004/2005 eta 2005/2006 ikasturteetan irakaskuntza publikoan matrikulatzeko kanpaina.

2004: 2004/2005 ikasturtean irakaskuntza publikoan matrikulatzeko kanpaina.

Gastua guztira: 48.100 euro

Kontusaila: 400000 41000 2262 421100. Publizitatea.

Enpresa: G.A.P.´ S. Comunicación Pamplona S.L.
Aldibaterako enpresa-elkartea

Edukiak: Nafarroako irakaskuntza publikoan matrikulatzeko eta izena emateko datak.

Euskarriak eta komunikabideak:

PRENTSA

Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan iragarkiak.

ALDIZKARIAK

Ribera Navarra
Calle Mayor de Estella
La Voz de la Ribera
Plaza Nueva
Ttipi Ttapa
Entreto2

IRRATIA

Onda Cero, Ser eta Cope irratieta iragarki laburrak

BERINAPEETAN ETA TELEFONO KABINETAN

Kartelak paratzea

EKOIZPENA

Kartelak
Esku-orriak
Irratiko iragarkiak

2005: 2005/2006 ikasturtean irakaskuntza publikoan matrikulatzeko kanpaina.

Gastua guztira: 13.806 €

Kontusaila: 400000 41000 2262 321100 publizitatea

Enpresa: G.A.P.´ S. Comunicación Pamplona S.L.

Edukiak: Nafarroako irakaskuntza publikoan matrikulatzeko eta izena emateko datak.

Euskarriak eta komunikabideak:

PRENTSA

Iragarkiak honako egunkarietan: Diario de Navarra, Diario de Noticias eta La Estafeta.

KARTELAK ETA ESKU-ORRIAK

Kartelak eta esku-orriak argitaratu eta ikastetxe publikoetan banatu.

4.- Bullying/eskola-jazarpenaren kontrako kanpaina: "Quítate la venda"

2005

Gastua guztira: 32.387,10 euro.

Kontusaila: 400000 41000 2262 321100. Publizitatea.

Enpresa: G.A.P.´ S. Comunicación Pamplona S.L.

Edukiak: Eskola-jazarpenari aurrea hartzeko informazioa eta aholkuak eta arreta zuzena emateko kogntaktu-bideak.

Euskarriak eta komunikabideak:

PRENTSA

Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan iragarkiak.

IRRATIA

Onda Cero, Ser eta Cope irratieta iragarki laburrak.

TELEBISTA

Telebistetako iragarkiak honakoetan: Canal 6, Canal 4 eta Popular TV.

Eskola-jazarpenari buruz informatzeko esku-orriak ikasle, irakasle eta familiei zuzenduta.

Arreta zuzena emateko telefonoa, posta elektronikoa eta web orria zabaltzeko kartelak.

Gazteen zentroetan, osasun zentroetan eta gizarte zerbitzukoetan banatzeko esku-orriak eta kartelak.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 19an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, zenbait ikastetxe eraiki edo berritzeko lanen exekuzioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak zenbait ikastetxe eraiki edo berritzeko lanen exekuzioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du 2005. urteko ekitaldian ikastetxeak eraiki eta handitzeko egindako lanei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

UDALERRIA	OBRAK	2005 ekitaldiaren kargurako inbertsioa	HASIERA	OBRAREN BUKAERA
ALTSASU	Zelandi IP	594.289,77 €	2005eko abuztua	2005eko abendua
AÑORBE	Añorbe IP	200.000,00 €	Urria	2006ko apirila
BURLATA	Hilarión Eslava IP: Handitzea	491.792 €	2004ko abuztua	2005eko uztaila
CASTEJÓN	"Dos de Mayo" ikastetxe publikoa handitzea	33.358 €	2004ko maiatza	2005eko urtarrila
CINTRUÉNIGO	Cintruénigo DBHI	1.024.095 €	2005eko maiatza	2005eko abendua
CORELLA	Corella IP	961.668 €	2005eko martxoa	2005eko iraila
LIZARRA	B.H.I. Politeknikoa. Birmoldaketa	561.365,64 €	2004ko abuztua	2005eko abuztua
LEKAROTZ	Lekarotz BHI	55.000,00 €	2005eko maiatza	2005eko uztaila
LEKUNBERRI	Lekunberri IP	500.000 €	2005eko otsaila	2005eko iraila
LODOSA	Lodosa BHI. Handitzea	982.097 €	2005eko otsaila	2005eko abendua
IRUÑA	San Francisco IP	350.000 €	Udalak egindako lana	
IRUÑA	Teresatarrak. Erdi Mailako Musika Eskola	54.296 €		
IRUÑA	Eunate Bigarren Hezkuntzako Institutua handitzea	112.121 €	2004ko uztaila	2005eko apirila
IRUÑA	"M ^a Ana Sanz" B.H.I.	60.475 €	2005eko ekaina	2005eko iraila
IRUÑA	Mendillorri bigarren hezkuntzako institutu berria	127.510 €	Proiektuaren ordainketa	
IRUÑA	Elorri Berria IP	1.803.521 €	2004ko abuztua	2005eko urria
IRUÑA	Bideko Ama Birjina BHI Tailerrerako nabe berria	231.844 €	2004ko otsaila.	2005eko martxoa
IRUÑA	"La Granja" BHI	56.921,86 €	2005eko apirila	2005eko ekaina
AZKOIEN	Peralta IP. Lehen hezkuntza handitzea	923.473 €	2005eko urria.	2005eko iraila
TUTERA	ETI VIEJA	11.788 €	2005ean egindako zenbait lan	
TUTERA	"Torre Monreal" Hezkuntza Bereziko Ikastetxea	10.092 €	2004ko abuztua	2005eko abendua
TUTERA	"BENJAMIN" BHI	28.188 €	2004ko abendua	2005eko urtarrila
ATARRABIA	"Lorenzo Goikoa" IP. Handitzea.	945.620 €	2004ko abendua	2005eko urria.
	BESTE LAN APALAGO BATZUK	1.026.891 €		
	Guztira	11.151.407 €		

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Cortesko osasun kontsultategiaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Cortesko osasun kontsultategiaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Cortesko osasun kontsultategiaren egoerari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Osasun Departamenduak egoeraren berri badu eta kontsultategiak ez du inolako arriskurik osasun publikorako (Osasun Departamentuak egindako ikuspenaren akta erantsi da).

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zegozkion gabeziak zuzendu ditu autoklabe berri bat erosi zuelako.

Bestelako gabeziak udal eskumenekoak dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 20an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Osasun Departamentuan 2007. eta 2008. urteetarako aurreikusitako birmoldatze obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasun Departamentuan 2007. eta 2008. urteetarako aurreikusitako birmoldatze obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasun Departamentuan 2007. eta 2008. urteetarako aurreikusitako birmoldatze obrei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2006. urterako Nafarroako aurrekontu orokorretako "Hurrengo ekitaldietan jarraipena izan behar

duten inbertsio errealetarako kredituak" izeneko atalean agertzen denez, Osasun Departamentuaren arloan Nafarroako Ospitaleari dagokion "Eraberritze-lanak" izeneko 542000-52230-6020-312802 kontusaila dago. Kontusail horrek 1.520.000 euro izanen ditu 2007. urterako eta 11.942.000 euro 2008. erako.

Diru-zuzkidura horien helburua da Nafarroako Ospitaleko C pabiloia eraberritzeko eta handitzeko lanak egitea. Proiektu arkitektonikoa erredaktatze fasean dago.

Inbertsioen aldizkatzeari dagokionez, epe ertaineko plan ekonomikoa 2006. eta 2007. urteetarako da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 20an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, hizkuntz ereduaren arabera hezkuntza eskaintzari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak hizkuntz ereduaren arabera hezkuntza eskaintzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da. Galdera 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak haur eskolei eta haurtzaindegiei buruzko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Iruñerriko Oitiko 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloaren eskaintzari buruz, hizkuntza ereduaren arabera, honako datuak ditu:

Iruñerria, hiri-eskualdea	Udalerría	Ikastetxearen izena	Unitate kopurua	Euskara	Gaztelania	Ingelesa
	Antsoain	SAN CRISTOBAL udal ikastetxea	7	3	4	
	Barañain	BARANAIN udal ikastetxea	8	2	6	
	Berriozar	BERRIOZAR IRUÑALDE udal ikastetxea	9	4	5	
	Berriozar	BERRIOZAR RECALDE udal ikastetxea	6	2	4	
	Burlata NGOI	Egungentzi	8		8	
	Eguesibar	EGUESIBARKO udal ikastetxea	7			7
	Uharte	URRATS udal ikastetxea	10	6	4	
	Uharte-Esteribar	Uharte-Esteribarko udal ikastetxea	2	2		
	Orkoien	OSTADAR udal ikastetxea	6	3	3	
	Arangurengo ibarra	KULUXKA udal ikastetxea	14	7	7	
	Atarrabia	AMALUR udal ikastetxea	12	6	6	
	Zizur Nagusia	ZIZUR NAGUSIKO udal ikastetxea	6	3	3	
Total Guztira			95	38	50	7
Iruñerria, landa-eskualdea						
	Oltza Zendea	OLTZAKO udal ikastetxea	5	3	2	
	Gares	TXORI udal ikastetxea	4		4	
Guztira			9	3	6	0
Iruña (hiria)						
	Iruña	EGUNSENTI udal ikastetxea	8	8		
	Iruña	HELLO ROCHAPEA udal ikastetxea	12			12
	Iruña	MENDILLORRIKO udal ikastetxea	10		10	
	Iruña	HAURTZARO udal ikastetxea	8		8	
	Iruña	ROTXAPEAKO udal ikastetxea	8		8	
	Iruña	PRINTZEAREN HARRESI udal ikastetxea	8		8	
	Iruña	ARROSADIAKO udal ikastetxea	4		4	
	Iruña	DONIBANEKO udal ikastetxea	11		11	
	Iruña	MENDEBALDEAKO udal ikastetxea	8		8	
	Iruña	IZARTEGI udal ikastetxea	8	8		
	Iruña NGOI	Santa Teresa	6		6	
	Iruña NGOI	San Jorge	7		7	
	Iruña NGOI	Ninia-Etxea	8		8	
	Iruña NGOI	Nuestra Señora de Roncesvalles	5		5	
	Iruña NGOI	Nuestra Señora de los Angeles	6		6	
Guztira			85	16	57	12
Guztira			189	57	113	19

2002ko Azterlan bat dago, Hezkuntza eta Gizarte Ongizate departamentuek egina, 0-3 urte bitarteko zikloari buruz. Azterlan hori gurasoek eskatutako ereduari buruz da. Horretan datuak eskualdeka biltzen dira.

2002ko azterlaneko portzentajeak egun euskaraz ikasteko dagoen eskaintzari egokitutakoan honakoa ateratzen da:

Eskualdea	Eskaera ehunekoetan	Eskaintza ehunekoetan
Sakana/Leitza	83.3	100
Baztan/Bidasoa	87.5	100
Pirinioa	74.1	55.5
Lizarraldea	43.3	21
Ekialdeko erdialdea	20.5	21
Erribera garaia	5.5	0
Erribera	4.8	0
Iruñerria, hiri-eskualdea	34.7	40
Iruñerria, landa-eskualdea	46.3	33.3
Iruña (hiria)	31.7	18.8

Ikastetxe bakoitzeko 0-3 urte bitarteko irakaskuntzaren eskaintza ikastetxe horren jabe den udalak erabakitzen du, udal esparruko irizpideen arabera.

Ikastetxeak sortzeko ekimena eta hizkuntza ereduaren aukeraketa udal eskumenekoak dira.

Ikastetxea planifikatzeko, Hezkuntza Departamentuak dagoen azterlanaren datuak udalei ematen dizkie.

Iruñean, 2005eko abenduaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Lizarbe Baztán jaunak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko publizitate kanpainei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Ekonomia eta Ogasun Departamentuak 2004. eta 2005. urteetan egindako publizitate kanpainei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

2004. eta 2005. urteetan, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak bi publizitate kanpaina egin zituen. Horiek, hurrenez hurren 2003 eta 2004 ekitaldietako pertsona fisiko-ko errentaren gaineko eta ondarearen gaineko aitortpenak egiteko kanpainei zegozkien

2003ko pertsona fisiko-ko errentaren gaineko eta ondarearen gaineko aitortpena egiteko kanpainaren publizitateak 179.998 euroko aurrekontua izan zuen, 2004ko Nafarroako aurrekontu orokorren "publizitatea" izeneko 12280 152001 2269 613100 kontusailaren kargura. Aipatu publizitate kanpaina horren kontratazioa egiteko lehiaketa bat egin zen eta "Intro, Publicidad y Comunicación" enpresari esleitu zitzaion; beraz, enpresa horrek kanpaina diseinatu eta egin zuen. Kanpaina horren helburuak honakoan izan ziren: Nafarroako herritarrei pertsona fisiko-ko errentaren gaineko eta ondarearen gaineko aitortpenaren kanpainari buruzko informazio interesgarria ezagutaraztea, baita epeak, aitortpena egin behar zutenen zerrenda eta aitortpenak aurkezteko tokiak ere ezagutaraztea; eta Nafarroako Zerga Ogasunak milaka zergadunei bidalitako autolikidazioen funtzionamendua eta ezaugarriak ezagutaraztea. Halaber, Parlamentuak onetsitako Nafarroako aurrekontu orokorrek zergen bidez bildutako diruarekin egin behar zutenari buruzko informazioa ematen zen. Erabilitako bitartekoak honakoak izan ziren: Nafarroan argitaratzen diren bi egunkariak, bertako aldizkariak, irratiak, telebista kateak, zinemak, berinapeak eta zergadunei bidalitako esku-orriak.

2004ko Pertsona Fisiko-ko Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko aitortpena egiteko kanpainaren publizitateak 179.964 euroko aurrekontua izan zuen 2005eko Nafarroako aurrekontu orokorren "publizitatea" izeneko 1220 152001 2262 932100 kontusailaren kargura. Aipatu publizitate kanpaina 2005. urtean Nafarroako Gobernuaren publizitatea egiteko lehiaketa irabazi zuen "Gap's Comunicación" enpresak diseinatu eta egin zuen. Kanpaina horren helburuak honakoan izan ziren: Nafarroako herritarrei pertsona fisiko-ko errentaren gaineko eta ondarearen gaineko aitortpenaren kanpainari buruzko informazio interesgarria ezagutaraztea, baita epeak, aitortpena egin behar zutenen zerrenda eta aitortpenak aurkezteko tokiak ere ezagutaraztea; eta Nafarroako Zerga Ogasunak milaka zergadunei bidalitako autolikidazioen funtzionamendua eta ezaugarriak ezagutaraztea. Halaber, parlamentuak onetsitako Nafarroako aurrekontu orokorrek zergen bidez bildutako diruarekin egin behar zutenari buruzko informazioa ematen zen. Erabilitako bitartekoak honakoak izan ziren: Nafarroan argitaratzen diren bi egunkariak, bertako aldizkariak, irratiak, telebista kateak, zinemak, berinapeak eta zergadunei bidalitako esku-orriak.

Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoei dagokienez, "Viviendas de Navarra, S.A." izeneko sozietateak baino ez du 2004an kanpaina baten berri eman, Sarrigurengo 1. faseko 1.030 etxebizitzak babesteko esleitzeko egin beharreko hautapen prozesuaren ondorioz; betiere, arlo honetan aplikatzekoa den araudiaren arabera. Kanpaina horren kostua 45.818,04 eurokoa izan zen, eta aipatu etxebizitza horien sustatzaileek kontratatu eta ordaindu zuten. Departamentu honetako Ondare Zerbitzuaren menpeko beste enpresek, jakitera eman dutenez, 2004-2005 urteetan ez dute publizitate kanpainarik egin; izan ere, iragarki solteak baino ez dituzte egin, eta ia beti Nafarroan argitaratzen diren bi egunkarietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 19an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Lizarbe Baztán jaunak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko publizitate kanpainei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, eta haren menpeko sozietate publikoek, 2004 eta 2005 ekitaldietan ez dute inolako publizitate kanpainarik egin.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 19an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, nekazaritza-elikagaien hiria izanen dena hautatzeko irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak nekazaritza-elikagaien hiria izanen dena hautatzeko irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du nekazaritza-elikagaien hiria izanen dena hautatzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

– Zer irizpideri jarraikiz hautatu du Nafarroako Gobernuak Erriberako hiriburua nekazaritza-elikagaien hiria ezartzeko?

Proiektu orokorraren diseinuan parte hartu duen aholkularitza-enpresaren laguntzaz Nafarroako Gobernuak erabili dituen irizpideak Nafarroako nekazaritza-elikagaien hiria sustatzeko ekimenari buruz eransten den txostenean zehazten direnak dira.

– Foru Gobernuak kontuan hartu dituen herri guztiak Nafarroako Erriberan daude. Aztertu al dira Nafarroako beste eskualde batzuk aipatu zentrotan jartzeko?

Zentroa jartzeko aztertu diren eskualdeak aipatu txostenean agertzen dira eta balizko kokaleku horiek (Tutera, Funes, Castejón, San Adrián, Milagro eta Caparroso) bertan sektore horretako enpresak daudelako eta komunikazio egokiak dituztelako hautatu dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 16an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, banda zabala hedatzeko plan nazionalean parte ez hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak banda zabala hedatzeko plan nazionalean parte ez hartzeari buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruero Valencia andreak galdera egin du Nafarroako banda zabala hedatzeko plan nazionalean parte ez hartzea erabaki izanari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Zergatik Nafarroak erabaki du banda zabala hedatzeko plan nazionalean parte ez hartzea?

Azpiegituren eta telekomunikazioen arloko zerbitzuen merkatua liberalizatuta dago, eta, horrenbestez, azpiegiturak zabaltzea sektore pribatuari dagokio, alegia, telekomunikazioen arloko operadoreei eta zerbitzu-hornitzaileei, estatuko administrazio orokorrak eta Europar Batasunak ezarritako arauak jarraituz. Hala ere, Nafarroako eskualde batzuk, populazioaren masa kritikoa eskasa izateagatik, ez dira erakargarriak operadoreek bertan inbertsioak egin ditzaten; hori dela eta, eskualde horiek eten digital bihurtzeko arrisku handia dute.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean banda zabaleko telekomunikazioetako azpiegiturak garatzeko plan zuzendaria onetsi zuen 2003-2006 aldirako, gero eta herritar gehiagok aukera izan dezaten banda zabaleko sare berriak erabiltzeko, operadoreentzat erakargarritasun ekonomiko gutxien duten eskualdeetan kalitate handia duten internetarako sarbideak izan ditzaten eta herritarren sektore esanguratsu guztiak informazioaren gizartean sar daitezten, errenta maila eta kokapen geografikoa kontuan hartu gabe.

Helburu hori betetze aldera, Nafarroako Gobernuak sare publiko bat zabalduko du (garraiorako eta sarbiderako), xede diren herrietan zerbitzu hori eskaintzea ahalbidetuko duena. Halaber, sarbiderako sarea ustiatzeko eskubidearen emakida egingen dio, lehiaketa publikoaren bidez, banda zabaleko sarbidea eskaintzeko konpromisoa hartzen duen operadoreari, Gobernuak zehazturiko ezauzgarrien arabera.

Telekomunikazioen sare publikoak banda zabaleko zerbitzuak eramango ditu guztira 75.000 biztanletik gora dituzten 160 herri baino gehiagora; 100 biztanle baino gehiago dituzten herri guztiek estaldura izanen dute, baita biztanle gutxiagoko herri askok ere. Horretarako aurrekontua 8,73 milioi euro izanen da. Sareak garraiorako sare bat izanen du, Opatel sozietate publikoak kudeatuko duena, eta banatze/sarbide sare bat, horretarako egingen den lehiaketan adjudikazioa lortzen duen operadoreak –Iberbanda enpresa, hain zuzen– kudeatuko duena.

Nafarroako Gobernuaren sarearen % 50 Europar Batasuneko FEDER funtsen bidez finantzatuko da.

Sare horren kontratazio aldia garatzen zen bitartean, administrazio zentralak proposamen bat egin zien autonomia erkidegoei. Horren bidez, operadore pribatuei kreditu bigunak emateko konpromisoa hartu zuen, une horretan banda zabalik ez zuten eskualdeetako herritarrei (% 7) banda zabaleko zerbitzuak eskaini ziezazkieten, planari atxikitzen zitzaizen autonomia erkidego guztietan.

Laburbilduz, banda zabalaren plan nazionalaren proposamena hau da:

- Ez zuen funts galdurako finantzaketarik eskaintzen. Maileguak operadore pribatuentzat ziren. Nafarroako Gobernuak proposatutako planak aurrekontuaren % 50 lortzen du Europar Batasuneko FEDER funtsetatik.

- Nafarroako Gobernuaren sareak titulartasun publikoa du eta operadore guztiek erabil dezakete baldintza berdinetan. Administrazio zentralaren sarea, aldiz, kasu bakoitzean dagokien operatzaile pribatuena da.

- Nafarroako Gobernuaren sarearen estaldurak nabarmen gaitzen zuen banda zabalaren plan nazionalean jasotako herrien zerrenda; izan ere, Nafarroako herritar gehienak hartzen ditu eta

estaldura bermatzen du 100 biztanle baino gehiago dituzten herriguneetan.

Horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak bultzatzen zuen sareak abantaila gehiago zituenez foru erkidegoaren interes orokorrerako, Nafarroako Gobernuak Industria Ministerioari igorri zizkion bultzatzen ari zen sareari buruzko xehetasun guztiak eta sarearen ezarpena finantzatzen lagun zezan eskatu zion.

Egun ez da oraindik lankidetzak konpromisorik zehaztu gai horrekin lotuta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Pirinioetako larrialdiko plan estrategikoaren erredakzioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak Pirinioetako larrialdiko plan estrategikoaren erredakzioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Pirinioetako larrialdiko plan estrategikoaren erredakzioari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen

Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako lurralde estrategia onetsi izanaren ondorioz Nafarroako Gobernua Pirinioen garapenerako plan estrategikoa garatzen hasi da.

Nafarroako Gobernuaren departamentu guztiek eta ukitutako toki entitateek hartu behar dute parte plan horren prestaketan.

Gobernuaren asmoa da plan hori ahal den epe laburrean onartzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, interes turistikoa duten tokietan horma-irudiak ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak interes turistikoa duten tokietan horma-irudiak ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera egin du turismorako seinaleak jartzeko planaren zenbait alderdiri buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Erantzun baino lehen, aurten abiatu den turismorako seinaleak jartzeko plana Herrilan Garraio eta Komunikazio eta Kultura eta Turismo departamentuen arteko elkarlanean egiten ari den proiektua dela esan behar da. Aurreikusita dago plana hiru urteetan burutzea, 2005tik 2007ra bitarte alegia; 2005ean 300.000 euro gastatuko dira, eta aurrekontua guztira 900.000 eurokoa da.

Nafarroan paratuko diren turismorako seinaleetan, euskarazko seinaleei dagokien foru araudia beteko da, turismorako ez diren seinaleetan egiten den bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printzea Erakundea Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, etxebizitzak errentamenduan ematen dituzten entitateentzako hobariei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Jesús Pardo Gurpegui jaunak etxebizitzak errentamenduan ematen dituzten entitateentzako hobariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Jesús Pardo Gurpegui jaunak galdera egin du etxebizitzak errentamenduan ematen dituzten entitateentzako hobariei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren

erantzuna: sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen V. kapituluaren ezarritako araubideari enpresa bakar batek heldu diola:

– 2004ko ekitaldian enpresa horrek hobarietan 70.213,06 euro aplikatu ditu. 2005eko ekitaldian oraindik ez da aurkeztu zergaren gaineko aitorpena.

Enpresak jakinarazi duenaren arabera, martxoaren 5ean, haren ibilgetu materiala, besteak beste, alokairuko jarduera-atalaren barne zeuden 116 etxebizitzek osatua zegoen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusian euskarazko liburuak eskatzeko betetzen den fitxari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Nafarroako Liburutegi Nagusian euskarazko liburuak eskatzeko betetzen den fitxari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Liburutegi Nagusian liburuak mailegatzeko txartelekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Lehenik eta behin parlamentari horri Kultura eta Turismo Departamentuaren esker ona adierazi nahi diogu; izan ere, nahigabeko hutsegite baten ondorioz, mailegua egiteko txartel mota horien azkeneko inprimatzean, azken urteotan gaztelaniazko txarteletan kendutako "irakurgarria" hitza ez zen kendu euskarazko txarteletan.

Hori dela eta, akatsa berehala konponduko da, eta dagoeneko hitz hori gabe euskarazko txartel berriak egiten ari dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 20an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako hezkuntza sistema uzten duten ikasleen portzentaje-ari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Nafarroako hezkuntza sistema uzten duten ikasleen portzentajeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako hezkuntza sistema uzten duten ikasleen eta DBH eta batxilergoa amaitzen dutenen portzentajeari buruz, eta hezkuntza gaie-tarako bideratzen den BPGaren portzentajeari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak argitaratutako "Las cifras de la educación en España. Estadística e indicadores. 2005" (www.mec.es) liburuan erabilitako "ikasketen uzte goiztiarraren" definizioari jarraikiz, ikasketen uzte goiztiarra da derrigorrezko bigarren hezkuntzaren 2. etapa amaitu ez duten eta azken lau asteetan inolako ikasketa-prestakuntzarik egin ez duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa. Adierazle hori definituta dago Europar Batasuneko egiturazko adierazlearen barruan.

1998. urtean, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren 2. etapa amaitu ez duten eta inolako ikasketa-prestakuntzarik egiten ari ez diren 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa 16,8 izan da Nafarroan.

2002. urtean, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren 2. etapa amaitu ez duten eta inolako ikasketa-prestakuntzarik egiten ari ez diren 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa 20,6 izan da Nafarroan.

2003. urtean, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren 2. etapa amaitu ez duten eta inolako ikasketa-prestakuntzarik egiten ari ez diren 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa 20,9 izan da Nafarroan.

Derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergoa amaitzen duten ikasleen ehunekoari dagokionez, beharrezkoa da "graduatu diren populazioaren tasa gordina" adierazlea aipatzea, hau da, ikasketei dagokien titulazioa lortzen duten pertsonen ehunekoa, ikasketa maila hori amaitzeko adin teorikoan dagoen populazioarekin alderatuta (16 urte derrigorrezko bigarren hezkuntzaren kasuan eta 18 urte batxilergoaren kasuan).

Derrigorrezko bigarren hezkuntza, Nafarroan:

1999-2000 ikasturtea: 81,9

2000-2001 ikasturtea: 82,7

2001-2002 ikasturtea: 77,9

Ez dago ondorengo ikasturteei buruzko behin betiko daturik, ezta hezkuntza sareka bereizitako daturik.

Batxilergoa, Nafarroan:

1999-2000 ikasturtea: 48,1

2000-2001 ikasturtea: 52,6

2001-2002 ikasturtea: 52,7

Ez dago ondorengo ikasturteei buruzko behin betiko daturik, ezta hezkuntza sareka bereizitako daturik.

Eskuragarri ditugun datuen arabera, hauxe izan da azken urteetan hezkuntzaren arloan eginitako gastu publikoa, Nafarroako BPGarekin alderatuta:

1995: 3,57

1996: 3,64

1997: 3,62

1998: 3,57

1999: 3,58

2000: 3,59

2001: 3,55

2002: 3,58

2003: 3,60 (behin-behinekoa).

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Lizarbe Baztán jaunak Toki Administrazioiko Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du Toki Administrazioiko Departamentuak 2004 eta 2005 urteetan egin dituen publizitate kanpainei buruz. Hona Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren elehunaren erantzuna:

2004an, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak 012-Infolocal udal-informazioa emateko telefonoari buruzko publizitate kanpaina egin zuen. Aurrekontua 60.000 eurokoa zuen, eta "Publizitatea, infolocal zabaltzea" izeneko 21500 210001 2262 124002 kontusailaren kargura ordaindu zen. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz "Gap's Comunicación" izeneko enpresa arduratu zen, enpresa hori baita Nafarroako Gobernuaren 2004ko sormenezko publizitatea kudeatzeko kontratuaren adjudikazio-hartzailea. Kanpaina horren helburua da 012-infolocal udal-informazioa emateko telefonoaren erabilera sustatu eta zabaltzea. Erabilitako bitartekoak honakoak izan ziren: Nafarroan argitaratutako egunkariak, bertako aldizkariak, kartelak eta esku-orriak, eta poltsak, boligrafoak, eranskailuak eta horien antzeko promozio-objektuak estanpatu eta banatzea.

Halaber, 2004an, Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Gobernuaren <http://www.navarra.es> webgunea sustatu zuen. Aurrekontua 179.930 eurokoa zuen, eta "Publizitatea" izeneko 22100 221002 2262 126500 kontusailaren kargura ordaindu zen. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz "Gap's Comunicación" izeneko enpresa arduratu zen. Kanpainaren helburuak ziren Nafarroako Gobernuaren interneteko atariak eskaintzen dituen

informazioa eta zerbitzuak herritarrei ezagutaraztea eta erabilera bultzatzea. Erabilitako bitartekoak honakoak izan ziren: komunitatean argitaratzen diren egunkariak, bertako aldizkariak, irriatiak, telebista-kateak, zinemak, iragarki-hesiak eta berinapeak.

Halaber, Nafarroan turismoa bultzatzeko kanpaina bat egin zen, 116.045 euroko aurrekontua zuena, "publizitatea" izeneko 22100 221002 2262 126500 kontusailaren kargura. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz "Gap's Comunicación" izeneko enpresa arduratu zen. Kanpainaren helburua zen Nafarroatik kanpoko balizko merkatuetan turismorako erakargarriak diren Nafarroako alderdiak ezagutaraztea. Erabilitako bitartekoak Gaztela-Mantxa eta Gaztela eta Leongo egunkariak eta telebista-kateak izan ziren.

2004ko Nafarroako eguna bultzatzeko ere kanpaina bat egin zen, 84.032 euroko aurrekontua zuena, "Publizitatea" izeneko 22100 221002 2262 126500 kontusailaren kargura. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz "Gap's Comunicación" izeneko enpresa arduratu zen. Kanpainaren helburuak ziren 2004ko Nafarroako egunaren ospakizuna zela eta antolatutako ekitaldien berri jendeari ematea eta horietan parte hartzera animatzea. Erabilitako bitartekoak honakoak izan ziren: Nafarroan argitaratzen diren egunkariak, bertako aldizkariak, irriatiak, telebista-kateak, zinemak, eta Nafarroako herri nagusietan zehar ibili zen furgoneta.

Era berean, sanferminetan Nafarroa sustatzeko kanpaina bat egin zen, 62.500 euroko aurrekontua zuena, "Publizitatea" izeneko 22100 221002 2262 126500 kontusailaren kargura. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz "Gap's Comunicación" izeneko enpresa arduratu zen. Kanpainaren helburua zen sanferminetako ekitaldiak telebistetan agertzen direla aprobetxatzea Nafarroako irudia eta interes turistikoa sustatzeko. Erabilitako bitartekoak Nafarroako eta nazioko telebista-kateak izan ziren.

2004an Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak, publizitate kanpainei zegokienez, egindako azken jarduketa tabakoaren kontsumoari aurrea hartzeko kanpaina laguntzea izan zen. Horrek, 59.998 euroko aurrekontua izan zuen "publizitatea" izeneko 22100 221002 2262 126500 kontusailaren kargura. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz

“Gap’s Comunicación” izeneko enpresa arduratu zen. Kanpainaren helburua zen Osasun Departamentuak sustatutako tabakoaren kontsumoari aurrea hartzeko kanpaina diruz laguntzea ahalik eta jende gehienengana hel zedin. Erabilitako bitartekoak honakoak izan ziren: Nafarroan argitaratzen diren egunkariak, bertako irratiak, telebista kateak, zinemak, eta berinapeak.

2005an, Toki Administrazioiko Departamentuak, Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Nafarroako Ubideari buruzko kanpaina bat egin du, 215.000 euroko aurrekontua zuena, “Publizitatea” izeneko 22100 220002 2262 921500 kontusailaren kargura. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz “Gap’s Comunicación” izeneko enpresa arduratu zen, enpresa hori baita Nafarroako Gobernuaren 2005eko sormenezko publizitatea kudeatzeko kontratuaren adjudikazio-hartzailea. Kanpaina horren helburuak ziren Nafarroako Ubidearen eraikuntzan egindako aurrerapenak herriarrei ezagutaraztea eta azpiegitura hidrauliko horren garrantzia eta onurak gogoraraztea. Erabilitako bitartekoak honakoak izan ziren: Nafarroan argitaratzen diren egunkariak, bertako irratiak, telebista kateak, zinemak, eta berinapeak.

Halaber, New Yorken Nafarroa promozionatzeko kanpaina bat egin zen, 45.000 euroko aurrekontua zuena, “Publizitatea” izeneko 22100 220002 2262 921500 kontusailaren kargura. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz “Gap’s Comunicación” izeneko enpresa arduratu zen. Kanpainaren helburua izan zen Merkataritza eta Industria Ganberak antolatutako Nafarroa New Yorken ezagutarazteko astea-zela eta egin beharreko ekitaldien berri ematea. Bitartekoak New Yorkeko egunkari eta aldizkari bana izan ziren.

Urte honetan, pertsona fisikoen errentaren gaineko eta ondarearen gaineko aitorpenaren kanpaina ere diruz lagundu da, 23.253 euroko aurrekontuarekin eta “Publizitatea” izeneko 22100 220002 2262 921500 kontusailaren kargura. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz “Gap’s Comunicación” izeneko enpresa arduratu zen. Kanpainaren helbu-

ria zen 2004. urteko pertsona fisikoen errentaren gaineko eta ondarearen gaineko aitorpenaren kanpaina diruz laguntzea ahalik eta jende gehienengana heltzeko, urte horretan nabarmen biderkatu zelako autolikidazioen kopurua. Gainera, egoki ikusi zen Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu horren onuradun ziren zergadun guztiei informatzeko esku-orri bana bidaltzea. Erabilitako bitartekoak honakoak izan ziren: Nafarroan argitaratzen diren egunkariak, bertako irratiak, telebista kateak, zinemak, berinapeak eta aipatu esku-orria.

2004an bezala, sanferminetako jaiak aprobe txatu ziren gure komunitatea promozionatzeko, horretarako 65.000 euroko aurrekontua erabiliz “Publizitatea” izeneko 22100 220002 2262 921500 kontusailaren kargura. Kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz “Gap’s Comunicación” izeneko enpresa arduratu zen. Kanpainaren helburua zen sanferminetako ekitaldiak telebistetan agertzen direla aprobe txatzea Nafarroako irudia eta interes turistikoa sustatzeko. Erabilitako bitartekoak Nafarroako eta nazioko telebista-kateak izan ziren.

Azkenik, 2005eko Nafarroako eguna bultzatzeko ere kanpaina bat egin zen, 73.503 euroko aurrekontua zuena, “Publizitatea” izeneko 22100 220002 2262 921500 kontusailaren kargura. Aipatu kanpaina egiteaz eta diseinatzeaz “Gap’s Comunicación” izeneko enpresa arduratu zen. Kanpainaren helburuak ziren 2004ko Nafarroako egunaren ospakizuna zela-eta antolatutako ekitaldien berri jendeari ematea eta horietan parte hartzera animatzea. Erabilitako bitartekoak honakoak izan ziren: Nafarroan argitaratzen diren egunkariak, bertako aldizkariak, irratiak, telebista kateak, eta zinemak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduan

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuako eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Lizarbe Baztán jaunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du publizitate kanpainei zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Kultura eta Turismo Departamentuak hiru publizitate kanpaina sustatu ditu 2004. eta 2005. urteetan; hain zuzen, kanpaina bat 2004. urtean eta bi 2005. urtean. Hona hemen xehetasunak:

2004. urtea

1- NAFARROAKO JAIALDIAK

KANPAINA PRENTSA ESPEZIALIZATUAN:

ARTEZ	Orrialdea koloretan, uztailean Orrialdea koloretan, abuztuan
BATONGA!	Orrialde laurdena koloretan, uztailean
INTERFOLK	Orrialde berezia zuri-beltzean
WORLD MUSIC	Orrialde erdia koloretan

REVISTAS REGIONALES

EL BOLO FERROZ	Kontrazala koloretan
ZE BERRI	Kontrazala
GOLEM	Barneko orrialdea
SAIDE	Barneko orrialdea
ENT	Orrialdea koloretan
VIAJAR	
POR ARAGÓN	Kontrazal barrua koloretan
ESCAPARATE	Orrialdea koloretan
TOROS SAN FERMÍN	Triptikoaren 1/6a
NABARRA	Orrialdea koloretan
HOTELES PAMPLONA/ SAN FERMIN	Orrialdea koloretan

INTERNET

FESTIVALES.COM Bannerra ekainean eta uztailean
Jaialdia buruzko informazio berezia

MUSICAPROM 12 komunikazio

DIARIO DE NAVARRA DIGITAL Bannerra sanferminei buruzko gehigarrian, uztailean eta abuztuan

DIARIO DE NOTICIAS DIGITAL Bannerra 4 astez

KANPAINA EGUNEROKO PRENTSAN, IRRATI-AN ETA GEHIGARRIETAN:

DIARIO DE NAVARRA

uztailaren 19an: orrialde-apurtzailea zuri-beltzean
uztailaren 25ean: orrialde-apurtzailea zuri-beltzean
uztailaren 26, 27, 28, 29,30, eta 31n: 3x4 zuri-beltzean
abuztuaren 2, 3, 4, 5, 6 eta 7an: 3x4 zuri-beltzean

DIARIO DE NOTICIAS

uztailaren 19an: 3x6 zuri-beltzean
uztailaren 25ean: 3x6 zuri-beltzean
uztailaren 26, 27, 28, 29,30, eta 31n: 3x4 zuri-beltzean
abuztuaren 2, 3, 4, 5, 6 eta 7an: 3x4 zuri-beltzean

LA ESTAFETA DE NAVARRA

uztailaren 19an: 3x6 zuri-beltzean
uztailaren 25ean: 3x6 zuri-beltzean
uztailaren 26, 27, 28, 29,30, eta 31n: 3x4 zuri-beltzean
abuztuaren 2, 3, 4, 5, 6 eta 7an: 3x4 zuri-beltzean

EL CORREO ESPAÑOL-DIARIO VASCO, HERALDO DE ARAGÓN, LA RIOJA

uztailaren 25ean: 3x4 zuri-beltzean
abuztuaren 3an: 3x4 zuri-beltzean

ABC VALLE DEL EBRO

uztailaren 16, 23 eta 30ean: Orri erdia koloretan

KANPAINA IRRATIETAN

20 segundoko 20 iragarki, uztailaren 26tik abuztuaren 7ra bitartean

*Cadena Ser

*Kiss FM

*Cadena 100

20 segundoko 10 iragarki, uztailaren 26tik abuztuaren 7ra bitartean

*Radio Navarra Cope

*Onda Cero Tudela

IGANDEKO GEHIGARRIAK:

Uztailaren 25ean, igandea:

El País Semanal: orrialde 1/3eko zutabea

La Mirada: orrialde 1/3eko zutabea

El Semanal: orrialde 1/3eko zutabea

El Mundoren El Magazine: orrialde erdiko zutabea

KANPAINAREN GASTUA, GUZTIRA: 106.874,59 euro.

Gastu hori "Nafarroako Jaialdiak eta beste programa artistiko berezi batzuk" izeneko A 1004 A 1410 2279 456100 kontusailaren kargura ordaindu zen.

2005. urtea

2- ERRIBERRIKO ANTZERKI KLASIKOAREN JAIALDIA

DIARIO DE NAVARRA

Ekainaren 22an, osteguna: orrialde apurtzailea

Uztailaren 21ean, osteguna; 2x5 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Uztailaren 22an, ostirala; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Uztailaren 23an, larunbata; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Uztailaren 24an, igandea; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Uztailaren 25ean, astelehena; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Uztailaren 27an, asteazkena; 2x5 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Uztailaren 28an, osteguna; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Uztailaren 29n, ostirala; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Uztailaren 30ean, larunbata; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Abuztuaren 4an, osteguna; 2x5 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Abuztuaren 5ean, ostirala; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Abuztuaren 6an, larunbata; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Abuztuaren 7an, igandea; 2x3 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

DIARIO DE NOTICIAS

Ekainaren 22an, osteguna: orrialde-apurtzailea zuri-beltzean.

Uztailaren 22an, ostirala; 2x5 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Uztailaren 28an, osteguna; 2x5 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

Abuztuaren 5ean, ostirala; 2x5 zuri-beltzean. Kultura edo agenda sailetan.

HERALDO, LA RIOJA, DIARIO VASCO/EL CORREO

Uztailaren 17an, igandea: 2x5 zuri-beltzean iragarki orokorra

IRRATIKO IRAGARKIAK

Iragarki laburrak Onda Cero, Ser eta Cope irratietan.

Uztailaren 22tik abuztuaren 7ra (4-5 eguneko).

BESTE HEDABIDE BATZUETAN:

EL PAÍS, El Viajero gehigarria. 2x4 tamainako iragarriak, koloretan, uztailaren 9an eta 23an.

EL MUNDO, El Cultural gehigarria. Orrialde erdiko iragarkia, koloretan, uztailaren 7an.

ABC Valle del Ebro. Orrialde erdiko iragarkiak, koloretan, uztailaren 8an eta 22an.

BESTE IRAGARKI BATZUK (iragarki orokorrak)

El Bolo Feroz

Navarra Tiempo Libre

Artez (Arte eszenikoei buruzko aldizkaria)

Ze berri aldizkaria

Festivales.com (web orria)

Onda Ribera irratia

KANPAINAREN GASTUA, GUZTIRA: 42.341,08 euro.

- Nafarroako Jaialdiak-Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia kontusailaren kargura (A11002 A1410 2279 355102 kontusaila): 6.213,08 euro.

- Enpresa laguntzaileek ordainduta: 36.128 euro.

3- TURISMOA SUSTATZEKO 2005eko KANPAINA

Kultura eta Turismo Departamentuko Turismoaren Sustapenerako eta Irudi Turistikorako Zerbitzuak publizitate kanpaina bat burutu du 2005. urtean, Nafarroa xede turistiko gisa sustatzeko.

Publizitate kanpainaren aurrekontua 800.000 eurokoa izan da eta 2005eko aurrekontuko "Publizitatea eta propaganda" izeneko A10002-A1200-2262-432100 kontusailaren kargura ordaindu da.

Kanpaina hori 516.595 eurotan kontratatu da, Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren bidez. Gainerakoa Turismo Zuzendaritza Nagusiak egin du zuzenean.

Kanpaina horretarako erabilitako euskarriak hedabide idatziak izan dira, prentsa eta turismoari buruzko aldizkariak hain zuzen. Zehazki, hauek izan dira egunkari eta aldizkariak:

EGUNEROKO PRENTSA

EL PAÍS, (El Viajero)
 LA VANGUARDIA (Viajar)
 EL MUNDO (Viajes)
 EL PERIÓDICO DE CATALUÑA (Destinos)
 EL PERIÓDICO DE CATALUÑA (Gourmets)
 EL PERIÓDICO (Placeres gehigarria)

ALDIZKARI NAZIONALAK

GEO Nafarroari buruzko ale berezia
 GEO
 NATIONAL GEOGRAPHIC
 RONDA IBERIA
 VIAJAR
 ALTAIR
 AIRE LIBRE
 TURISMO RURAL
 EL MUNDO DE LOS PIRINEOS
 ESPAÑA DESCONOCIDA
 EL CAMPING Y SU MUNDO
 INFORTURSA
 VIAJES Y VACACIONES
 RUTAS DEL MUNDO
 ALADIerno
 PARADORES
 VIAJEROS
 PAISAJES DESDE EL TREN
 DE VIAJES
 TURISMO Y AVENTURA
 CAMINAR
 HOSTELTUR
 VIAJES Y TURISMO
 T&T
 MAGAZINE El Mundo
 CAMARA DE COMERCIO (PARÍS)
 TOUR MAGAZINE
 LO MEJOR DE LAS AUTONOMÍAS
 METRÓPOLI
 EUSKALHERRIA

BUENA MESA

GRANDES ESPACIOS
 ECONOMÍA 3 (Valentzia)
 FEDERACIÓN HOGARES NAVARROS

Kanpaina horren barruan iragarki tematikoak jarri dira, marketin planaren markoan Nafarroarentzat zehaztutako turismo produktuei buruzkoak. Hona erabilitako iragarkiak:

- Lurralde oparoa
- 4 urtaro (negua)
- 4 urtaro (udaberria)
- 4 urtaro (uda)
- 4 urtaro (negua)
- Opor lasaiak
- Kultura naturan
- Landa turismoa
- Kongresuak
- San Fermin
- Kirola naturan
- Ardoen lurraldea
- Xabier
- Gastronomía

Iragarki horiek GAP's enpresak diseinatu ditu, berak jaso baitzuen Nafarroako Gobernuaren publizitatearen adjudikazioa 2005. urtean.

Iragarki horiek formatu hauetan egin dira:

- Azala
- Kontrazala
- Barruko orrialdeak
- Faldoiak

Guztira, 183 iragarki jarri dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 20an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Lizarbe Baztán jaunak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak 2004 eta 2005. urteetan egindako publizitate kanpainei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, hizpide dugun denbora horretan, 2004. urteari dagokion basoko suteei aurrea hartzeko kanpainaren finantzaketan parte hartu du. Kanpaina egin zen Nafarroako Su-itzaltze Partzuergoarekin eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuarekin elkarlanean. Kostua 24.121,54 eurokoa izan zen. Horietatik 7.878,16 Barne Zuzendaritza Nagusiko (Babes Zibilerako Zerbitzua) 02310G/053001/2262/221100 kontusailaren kargura, 9.365,22€ Ingurumen Zuzendaritza

Nagusiak emanak eta 7.878,16€ Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoak ordainduta.

Kanpainaz arduratu den enpresa Gap's Comunicación Pamplona SL enpresak eta Gap's Comunicación SL enpresak osatutako AEB izan da (IFZ: G-31805567). Kanpaina honako egunkari eta telebistetan garatu zen: Diario de Navarra, Diario de Noticias, La Estafeta de Navarra, TVE, Antena 3, Canal 4 eta Canal 6.

Edukiei dagokienez, honakoak izan ziren: "ez dezagun erre gure etorkizuna" eslogana zuten iragarki orrialde-apurtzailak, orrialde bikoitian eta koloreetan, moduluak 4X16, eta telebistarako 30 segundoko iragarki bat.

2005eko basoko suteei aurrea hartzeko kanpainari dagokionez, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak dituen datuen arabera eta emandako informazioaren arabera, Ingurumen Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza Departamentuko Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuak eta Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoak proiektatu eta garatu dute. Kostua, hurrenez hurren, 9.167€ eta 7.941,55€ izan da. Kanpainaz enpresa bera arduratu da eta kanpainaren ezaugarriak, erabilitako bitartekoak izan ezik (telebistetan ez baitira iragarkiak eman), berdinak izan dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 26ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	